

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

345/2016 Foru Agindua, azaroaren 21koa, deialdia eta oinarri espezifikoak, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario gisa (administrazio bereziko eskala, zerbitzu berezien azpieskala, egiteko berezien klasea, antolaketa) sartzeko hautaketa prozesua arautu behar dutenak

Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 3ko 499/2016 Erabakiaren bidez onartu zen Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko 2016rako enplegu eskaintza, zeinean jasota baitaude dagozkien hautaketa prozesuen bidez hornitu beharko diren plazak.

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuaren azaroaren 18ko 337/2016 Foru Aginduaren bidez oinarri orokorrak onartu ziren, aipatu den enplegu publikoaren eskaintza horren ondorioz Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrearen zerbitzura karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa prozesuak arautuko dituztenak.

Hautaketa prozesu bakoitza gauzatzeko, beharrezkoa da eskala, azpieskala eta klase bakoitzeko plazen deialdia arautu behar duten oinarri espezifikoak argitaratzea, eta horietan plaza bakoitzaren ezaugarri bereziak zehaztu beharko dira.

Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuaren bidez Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu ziren. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritz,

XEDATZEN DUT

Lehenengo artikulua. Oinarri hauen gai diren hautaprobetarako deia egitea.

Bigarren artikulua. I. eranskin moduan jasotzen diren oinarri espezifikoak onartzea, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario gisa (administrazio bereziko eskala, zerbitzu berezien azpieskala, egiteko berezien klasea, antolaketa) sartzeko hautaketa prozesua arautu behar dutenak.

Hirugarren artikulua. II. eranskin moduan jasotzen den gai zerrenda onartzea.

Laugarren artikulua. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz –azaroaren 26ko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan ezartzen duenarekin lotuta–.

Gasteiz, 2016ko azaroaren 21a

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

I. ERANSKINA**OINARRI ESPEZIFIKOAK****ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA, ZERBITZU BEREZIEN AZPIESKALA,
EGITEKO BEREZIEN KLASEA, ANTOLAKETA (kodea: 13216)****1. DEI EGITEN DEN PLAZAK**

Dei egiten da administrazio bereziko eskalako zerbitzu berezien azpieskalako egiteko berezien klaseko 4 plaza –antolaketa, A taldea, A1 (A) azpitaldea– oposizio-lehiaketa bidez hornitzeko, ondoren azaltzen den bezala banaturik:

– 4 plaza sistema irekiko txanda orokorrean, derrigortasun datadun 3. hizkuntza eskakizunarekin.

2. BETEKIZUNAK

Oinarri orokorretan ezartzen direnez gainera, doktore, lizentziadun, gradu, ingeniari, arkitekto edo gradu gehi master titulua edo baliokidea eduki beharko da, edo horiek jaulkitzeko eskubi-deak ordainduta eduki. Atzerrian lortutako tituluak izatekotan, horien homologazioa frogatzen duen egiaztatzea eduki beharko da.

Halaber, dei egindako 4 plazaetako 1 betetzeko, horrez gainera, beharrezkoa izango da B gidabaimena edukitzea.

3. HAUTAKETA PROZESUA**3.1. Oposizio aldia**

Aldi honetan, bi ariketa egin beharko dira, nahitaezkoak eta baztertze indarrekoak.

3.1.1. Lehenengo ariketa:

Ariketa honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa hamar (10) puntu da. Horren barruan nahitaezko bi proba egin beharko dira:

– Lehenengo proba:

Idatziz erantzun beharko zaio, epaimahaiak erabakitzen duen gehieneko denboran, oinarri hauetako gai zerrendaren zati komuneko edukien inguruko galdetegi bati. Aukeratzeko launa erantzun dituzten galderek osatuko dute galdetegia.

– Bigarren proba:

Idatziz erantzun beharko zaio, epaimahaiak erabakitzen duen gehieneko denboran, oinarri hauetako gai zerrendaren zati espezifikoko edukien inguruko galdetegi bati. Aukeratzeko launa erantzun dituzten galderek osatuko dute galdetegia.

Lehenengo probara aurkeztu ez direnak ezin izango dira inola ere bigarren probara aurkeztu.

Zuzeneko puntuazioa formula honen emaitza izango da: puntuazioa berdin erantzun zuzenen kopurua ken erantzun okerren herena ($P = Z - O/3$). Kontu horretarako, erantzun gabeko galderei ez zaie oker iritziko.

Epaimahaiak erabakiko du, izangaiak nortzuk diren jakin baino lehenago, gutxieneko bost (5) puntuko azken puntuazioa lortzeko beharrezkoa den ezagutza maila.

Kanporatuta geratuko dira bi probetan lortutako puntuazioak baturik bost (5) puntutara heltzen ez diren izangaiak.

Epaimahaiak gutxieneko bost (5) puntuko azkeneko puntuazioa lortzeko beharrezkoa den ezagutza maila ezarri eta gero, zuzeneko puntuazioak azken puntuazio bihurtuko dira, proportziozko banaketa baten arabera, halako moduan non hamar (10) puntuko azken puntuazioa bat datorren gehienez ere lor daitekeen zuzeneko puntuazioarekin. Eragiketa hauek guztiak izangaiak nortzuk diren jakin gabe egingo dira.

3.1.2. Bigarren ariketa

Epaimahaiak planteatutako kasu praktiko edo teoriko-praktiko bat edo gehiago egin beharko dira, honekin batera doan gai zerrendaren zati espezifikoarekin lotuak, hark erabakitzen duen gehieneko denboran.

Ariketa hau egitean izangaiek bakar-bakarrik erabili ahal izango dituzte epaimahaiak, ariketaren izaera eta edukia kontuan harturik, erabakitzen dituen kodeak eta antzekoak edo bestelako material teknikoak.

Bigarren ariketa zero (0) puntutik hamasei (16) puntura kalifikatuko da, eta zortzi (8) puntuko kalifikaziora heltzen ez direnak kanporatuta geratuko dira.

Ariketa hau kalifikatzeko, kontuan hartuko dira erantzunen zehaztasuna, sintesirako eta analisirako gaitasuna, garatutako ideien aberastasuna eta horien azalpenaren argitasuna eta zuzentasuna.

3.2. Euskara proba

Euskara proban, hizkuntza horren ezagutza ebaluatuko da 3. edo 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proba eginez.

3. edo 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatuta daukatenean edo balio bereko titulu edo ziurtagiri-tako bat daukatenean euskara ariketak egiteko eguna baino lehenago aurkeztu beharko dituzte titulu edo ziurtagiri horiek egiaztatzen dituzten agiriak, helbide honetan:

Euskara Zerbitzua - Funtzio Publikoko Zuzendaritza - Arabako Foru Aldundiaren Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saila. Probintzia plaza, 14-5.a 01001. Gasteiz.

Derrigortasun datadun 3. hizkuntza eskakizunaren kalterik gabe, 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatzea hautaketa prozesuaren gainerakoan lor daitekeen gehieneko puntuazioaren gainean baloratuko da, ondoko era honetan:

– 4. HE: 3,98 puntu.

3.3. Lehiaketa aldia

Lehiaketa aldian, izangaiek alegatu eta egiaztatu dituzten merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Haietako bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera dagozkion puntuak esleituz egingo da.

3.3.1. Esperientzia

a) Sistema irekia:

Herri administrazioetat jotzen diren erakunde eta organismoetako lan esperientzia baloratuko da, gehienez ere sei (6) puntutaraino, 0,05 punturekin edozein herri administrazioetan lan egindako hilabete oso bakoitzeko, baldin eta egin badira antolaketako, prestakuntzako eta kalitate sistemen kudeaketako eginkizun teknikoetan, eta administrazio orokorreko A taldeko A1 (A) azpitaldeko sailkapeneko eskala edo azpieskaletan edo baliokidean, Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuan xedatutakoaren arabera, eta edozein lotura juridikoren pean, salbu eta zerbitzuen errentamendu kontratu zibil edo merkataritzakoen, beken eta prestakuntza praktiken bitartez emandako zerbitzuak.

Ondorio horietarako, herri administrazioetat abenduaren 26ko 70/1978 Legeak barnean hartzen dituenak jotzen dira, berekin dakartenak herri administrazioiko aurretiazko zerbitzuen aitortpena, merkataritza sozietate publikoak eta fundazioak kanpo daudelarik.

3.3.2. Informatika ezagutza

Gehienez ere 0,50 puntutaraino ITTxartelaren ziurtatze sistemaren bitartez informatikaren ezagutza mailak egiaztatzeagatik, ondoko baremo honen arabera:

PROGRAMA	PUNTUAK
Windows 7	0,10
Microsoft Word 2010 aurreratua	0,10
Microsoft Word 2000 aurreratua	0,10
Microsoft Word XP aurreratua	0,10
Microsoft Word 2003 aurreratua	0,10
Microsoft Word 2007 aurreratua	0,10
Microsoft Power Point XP	0,10
Microsoft Power Point 2003	0,10
Microsoft Power Point 2007	0,10
Microsoft Power Point 2010	0,10
Microsoft Excel XP aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2000 aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2003 aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2007 aurreratua	0,10
Microsoft Excel 2010 aurreratua	0,10
Microsoft Access XP aurreratua	0,10
Microsoft Access 2000 aurreratua	0,10
Microsoft Access 2003 aurreratua	0,10
Microsoft Access 2010	0,10
Microsoft Outlook 2003 (gaztelania)	0,10
Microsoft Outlook 2003 (euskara)	0,10
Microsoft Outlook XP	0,10
Microsoft Outlook 2010	0,10
Internet aurreratua	0,10
Office XP	0,10

Aplikazio baten bertsio jakin baten ziurtapenak baliogabetu egingo ditu bertsio zaharra-
goenak.

Arabako Foru Aldundiak erakunde jaulkitzaileari ofizioz eskatuko dio izangaiek lortu dituzten
egiaztapenak ziurtatzeko, oinarri orokorretan ezarritako epearen barruan.

3.4. Praktika eta prestakuntza aldia

6 hilabete iraungo duen praktika eta prestakuntza aldi bat egingo da, oinarri orokorretan
ezarritakoarekin bat etorritz.

II. ERANSKINA

GAI ZERRENDA

1. GAI KOMUNAK

1. gaia. Espainiako Konstituzioa (I). Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak (10-55 artikulua).

2. gaia. Espainiako Konstituzioa (II). Estatuaren lurralde antolamendua (137-158 artikulua).

3. gaia. Europar Batasuna. Erakunde eta organismo nagusiak, haien osaera eta eskumenak:
Kontseilua, Batzordea, Parlamentua, Justizia Auzitegia, Europako Kontu Auzitegia, Eskualdeen
Batzordea, Europako Inbertsio Bankua.

4. gaia. Euskal Herriko Autonomia Estatutua (I). Atariko titulua (1-9 artikulua). I. titulua: Euskal Herriaren eskumenak (10-12 artikulua). II. titulua: Euskal Herriko aginteak (24-39 artikulua).

5. gaia. Euskal Herriko Autonomia Estatutua (II). III. titulua: ogasuna eta ondarea (40-45 artikulua).

6. gaia. Arabako Batzar Nagusiak eta Arabako Lurralde Historikoko Foru Administrazioa (I). 1983ko martxoaren 7ko Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko antolamenduari buruzkoa (1-14 artikulua).

7. gaia. Arabako Batzar Nagusiak eta Arabako Lurralde Historikoko Foru Administrazioa (II). 1983ko martxoaren 7ko Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko antolamenduari buruzkoa (15-33 artikulua).

8. gaia. Arabako Batzar Nagusiak eta Arabako Lurralde Historikoko Foru Administrazioa (III). 52/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa, Arabako Foru Aldundiaren antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoarena (3, 4, 17, 18, 38 eta 39 artikulua). 4/2000 Foru Araua, otsailaren 21koa, Arabako Foru Aldundiko, bere erakunde autonomoetako eta foru sozietate publikoetako goi kargudunen araubidea arautzen duena (1-6 artikulua).

9. gaia. Enplegu Publikoa (I). 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30koa, onartzen duena enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuaren legearen testu bateratua. Langile motak (8-13 artikulua). Enplegatu publikoen eskubideak (14-20 artikulua). Enplegatu publikoen egin-beharrak. Jokaera kodea (52-54 artikulua).

10. gaia. Enplegu Publikoa (II). 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30koa, onartzen duena enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuaren legearen testu bateratua. Zerbitzu harremana eskuratzea eta galtzea (55-68 artikulua).

11. gaia. Enplegu Publikoa (III). 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30koa, onartzen duena enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuaren legearen testu bateratua. Administrazio egoerak (85-92 artikulua). 6/1989 Legea, euskal funtzio publikoarena. Hizkuntza normalizazioa (97-99 artikulua).

12. gaia. Administrazioa Prozedura (I). 39/2015 Legea, urriaren 1koa, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenarena. Jarduera arau orokorrak (13-28 artikulua). Epe mugak eta epeak (29-33 artikulua). Egintzen eraginkortasuna (37-42 artikulua).

13. gaia. Administrazioa Prozedura (II). 39/2015 Legea, urriaren 1koa, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenarena. Administrazio prozeduran interesdun denaren eskubideak (53. artikulua). Prozeduraren antolamendua (70-74 artikulua). Ebazpena (87-92 artikulua).

14. gaia. Sektore Publikoko Kontratuak (I). 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, onartzen duena sektore publikoko kontratuen legearen testu bateratua. Xedea eta aplikazio eremua (1-4 artikulua). Kontratu motak (5-11 artikulua). Administrazio kontratuak eta kontratu pribatuak (18-21 artikulua).

15. gaia. Sektore Publikoko Kontratuak (II). 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, onartzen duena sektore publikoko kontratuen legearen testu bateratua. Itunak egiteko askatasuna eta kontratuaren gutxienezko edukia (25-26 artikulua). Baliogabetasun araubidea (31-36 artikulua).

16. gaia. Datuen Babesa. 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 12koa, datu pertsonalen babesarena. Xedapen orokorrak (1-3 artikulua). Datuak babesteari buruzko printzipioak (4-12 artikulua). Pertsonen eskubideak (13-19 artikulua).

17. gaia. Gardentasuna. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunaren, informazio publikoa eskuratzearen eta gobernu onaren. Aplikazio eremu subjektiboa (2-4 artikulua). Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea (12-16 artikulua). Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea gauzatzea (17-22 artikulua).

18. gaia. Berdintasun Politikak. Printzipio orokorrak eta babesa. Politika publikoak: printzipio orokorrak (3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriakoa: 3-22 artikulua). EAeko herri administrazioen esparruko neurriak (Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoa: 18-22 artikulua).

2. GAI ESPEZIFIKOAK

19. gaia. Antolaketaren kontzeptua eta motak. Printzipio orokorrak. Lan antolaketaren ikuspegi historikoa. Antolamolde konplexuen sorrera.

20. gaia. Antolaketaren teoriaren garapena administrazio publikoaren eremuan. Antolamendu publikoen elementuak. Administrazio publikoaren bereizgarriak antolamendu gisa.

21. gaia. Administrazio egituren oinarriko osagaiak. Sortze prozesua. Disfuntzio tipikoak. Eredu alternatiboak.

22. gaia. Lanaren espezializazioa: lanpostuen hedapena eta espezializazioa. Alderdi bertikala eta horizontala.

23. gaia. Antolamenduen hierarkia. Unitateak batzeko irizpideak.

24. gaia. Antolamendu diseinua: lanpostuen diseinua. Duen lotura antolatzeko paradigma berrien sorrerarekin. Antolamendu diseinuaren parametroak.

25. gaia. Gizarte erantzukizun korporatiboa. Kontzeptua. Helmena. Gizarte erantzukizun korporatiboaren (GEK / RSC) tresnak. Zeregina. Bultzada, administrazio publikoen aldetik.

26. gaia. Antolaketa-kultura administrazio publikoan: ezaugarriak eta elementuak. Aldaketa: erresistentziak gainditzea. Administrazioa modernizatzeko prozesuak.

27. gaia. Berrikuntza. Kontzeptua. Mota nagusiak (Osloko eskuliburua, ELGA / OCDE).

28. gaia. Lidergoa. Kontzeptua. Lidergoa nortasun ezaugarri gisa. Lidergoa jokaera gisa. Lidergoa konduktualaren teoria nagusiak: kudeatze-sareta ereduak, kokapen lidergoaren teoria, eraldatze lidergoaren teoria.

29. gaia. Laneko motibazioa: kontzeptua. Teoria nagusiak: beharren hierarkia (Maslow), ikasitako beharrak (McClelland), faktoreen teoria (Herzberg). Lan baldintzak. Motibazio prozesua. Teknikak. Lan balioa, espektatiba eta emaitza. Lanbide jomugak.

30. gaia. Erabakiak hartzea. Prozesua. Esku hartzen duten faktoreak. Teknika nagusiak: erabakien zuhaitza, AMIA / DAFO metodoa, arriskuaren ebaluazio numerikoa. Erabakiak taldean hartzea: Delphi metodoa, brainstorming, talde nominalaren teknika.

31. gaia. Aginte taula. Kontzeptua. Ezaugarriak. Onurak. Erabilgarritasuna kudeaketa publikoan. Adierazle sistemaren ezarpena.

32. gaia. Komunikazioa: komunikazioaren kontzeptua, mailak, elementuak eta eginkizunak. Barneko eta kanpoko komunikazioa. Etapak. Oztopoak. Komunikazio sareak.

33. gaia. Dokumentuak kudeatzeko sistemak. Definizioa. Kontzeptuak. Dokumentu kudeaketaren betekizunak. Dokumentuak kudeatzeko sistema bat diseinatu eta ezartzea. Gainbegiratzea eta auditoretza. (UNE-ISO 15489-1).

34. gaia. Giza baliabideen plangintza eta kudeaketa estrategikoa. Kontzeptua. Plangintza estrategikoko ereduak.

35. gaia. Antolaketa eraginkortasuna eta plantillen tamaina ezartzeko azterlanak. Tamaina ezartzeko irizpideak. Langile eskaeren definizioa. Beharren aurreikuspena.

36. gaia. Lanpostuen inbentarioa. Operatibitatea eta helburuak. Garapena. Lanketaren etapak.

37. gaia. Lanpostuen analisia. Kontzeptua. Helburuak. Analisi funtzionala. Ezaugarriak. Metodologiak. Pertsona-lanpostu egokitasuna.

38. gaia. Lanpostuen deskribapena. Edukia. Xehetasun mailak eta tartean diren alderdiak. Faseak. Eginkizunen eskuliburua egitea.

39. gaia. Lanpostuen analisiaren eta deskribapenaren aplikazio nagusiak. Enplegua eta betekizun espezifikoak administrazio publikoetan. Garatzeko ardura duten unitateak eta haien esku uzten diren zereginak.

40. gaia. Lanpostuen analista. Lanbide profila. Betekizunak. Haren ekarpena analisi prozesuan eta lanpostuen deskribapenean. Informazioa biltzeko prozedura lanpostuen analisisian eta deskribapenean. Metodologia nagusiak.

41. gaia. Lanpostuen balorazioa. Xedea. Aplikazioak. Lanpostuen balorazioa funtzio publikoaren gaineko legerian. Balorazio metodoak. Berrikuspen prozedurak.

42. gaia. Ordainsari politika aztertu eta finkatzea. Indarrean dagoen legeria. Soldata kontzeptuak eta soldataz kanpokoak. Soldata politikaren helburuak.

43. gaia. Administrazio publikoan produktibitate sistema bat ezartzeko metodologia. Kontzeptua eta lege alderdiak. Bete beharreko baldintzak. Sistema proposatu eta garatzea. Organoak. Kontrol mekanismoak.

44. gaia. Jardunaren ebaluazioa. Kontzeptua. Helburuak. Onurak. Tamainak eta motak. Prozesuko parte hartzaileak. Ikuspuntuak eta metodologiak. Ezarpena eta garapena. Jardunaren ebaluaziorako sistemen distortsioak.

45. gaia. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onartzen duena enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuaren legearen testu bateratua. Langile motak. Zuzendaritzako langileak. Enplegatu publikoen eskubideak. Lanbide karrerarako eta barne sustapenerako eskubidea. Jardunaren ebaluazioa.

46. gaia. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onartzen duena enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuaren legearen testu bateratua. Ordainsari eskubideak. Negoziazio kolektiborako, ordezkazarako eta erakundeetan parte hartzeko eskubidea. Biltzeko eskubidea. Enplegatu publikoen betebeharrak. Jokaera kodea.

47. gaia. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onartzen duena enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuaren legearen testu bateratua. Giza baliabideen plangintza. Enplegu publikoaren egituraketa. Lanpostuak hornitzea eta mugikortasuna.

48. gaia. 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, euskal funtzio publikoarena. Lanpostu zerrendak. Aurrekontuko plantillak. Enplegu publikoaren eskaintza. Langileak hautatzea. Langileen erregistroa.

49. gaia. 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, euskal funtzio publikoarena. Hizkuntza normalizazioa. 86/1997 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetako euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.

50. gaia. Enplegu planak. Ordenamendu juridikoa. Antolaketa egiturak eta lanpostuak aldatzea. Giza baliabideak berraxikitzea eta mugikortasuna. Enplegu plan baten eraginpeko enplegatuen egoerak.

51. gaia. Prestakuntza beharren diagnostikoa eta identifikazioa. Ikuspegia eta tresna nagusiak. Interdependentzia lanpostuen analisiarekin eta deskribapenarekin: estrategiak eta metodoak.

52. gaia. Etengabeko prestakuntzarako planak: definizioa, ezaugarriak. Eskaintza prestakuntza eta eskari prestakuntza. Ezaugarri definitzaileak. Helburuak. Aurretiko analisiak eta diseinuaren faseak. Etengabeko prestakuntzarako akordioak administrazio publikoetan.

53. gaia. Prestakuntza sistema berriak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak. Ikaskuntza eredu berriak: elkarlanekoa, proiektu eta arazoetan oinarritua.

54. gaia. Prestakuntzaren transferentzia. Kontzeptua. Trebetasunak eskuratu, erabili eta orokortzea. Prestakuntzaren ebaluazioa.

55. gaia. Prestakuntza eta lanbide karrera. Prestakuntzaren garrantzia kultura-aldaketaren estrategian. Prestakuntzaren eragina antolamenduen aldaketan. Ezagutza balio korporatibo gisa.

56. gaia. Ezagutzaren kudeaketa. Mentoring. Coaching. Ezagutzaren transferentzia. Kontzeptuak eta marko teorikoa.

57. gaia. Gaitasunaren kontzeptua. Osagaiak. Helburuak. Ezaugarriak eta motak. Gaitasun araua eta mailak. Gaitasunen profilak. Lanpostu taldekatzeak eta gaitasunkako prestakuntza.

58. gaia. Prozesukako kudeaketa. Prozesuen mapa eta deskribapena. Jarraipena, neurketa eta hobekuntza. Helburuak lortzeko prozesuetan oinarritutako kudeaketa. Prozesuetan oinarritutako ikuspegia duten sistemen dokumentu euskarria.

59. gaia. Lan prozesuen analisia, arrazionalizazioa eta berringeniaritza: kontzeptua, metodologia eta tresnak. Etengabeko hobekuntza eta prozesuak birdiseinatzea.

60. gaia. Kalitatea. Definizioak. Kontzeptuaren bilakaera eta kalitate ikuspuntua. Kalitate kontrola. Kalitatea bermatzea eta kalitate osoa. Kalitatearen kudeaketa. Kudeaketako bikaintasuna eta printzipio unibertsalak.

61. gaia. Bikaintasunaren funtsezko kontzeptuak. EFQM bikaintasun ereduaren irizpideak. EIHEB / REDER eskema logikoa. Ebaluazioa EFQM bikaintasun ereduarekin.

62. gaia. ISO 9000 Arauak: definizioak, oinarriak, kontzeptuak, kudeaketa eta funtzionamendua administrazioan. Kalitate auditoretzak.

63. gaia. Kalitatea kudeatzeko sistema ISO 9001 Arauaren arabera. Prozesuen definizioa. Adierazleak eta helburuak. Informazio dokumentatua. Etengabeko hobekuntza. Kalitate sistemen ezarpena eta ziurtapena.

64. gaia. Beste eredu batzuk: CAF, 5s, ISO 14.001. Ezaugarri nagusiak.

65. gaia. Pertsonen parte hartzerako tresnak. Hobekuntza taldeak eta arazoak konpontzeko metodologia. 5s programak. Hobekuntza-proposamen sistemak.

66. gaia. Ingurumen kudeaketako sistemak eta administrazio publikoak. EMAS. EMAS - ISO 14.001 alderaketa.

67. gaia. Kudeaketa aurreratuko sistema. Kudeaketa aurreratuaren elementuak. Kudeaketa diagnostikoa edo kanpoko kontrastea. Kontraste motak. Kudeaketako aurrerapen mailaren ebaluazioa eta horren erabilera.

68. gaia. Barneko kalitate auditoretzak. Zeregina eta ezaugarriak. Metodologia: programazioa, prestakuntza eta gauatzea. Auditoretza txostena.

69. gaia. Zerbitzu kartak. Definizioa, helburuak, edukia eta garatzeko metodologiak. Ziurtapena Administrazio publikoen eremuko arauak eta espezifikazioak (UNE 93200).

70. gaia. Bezeroaren gogobetetzea. Gogobetetzea neurtu eta analizatzeko metodoak eta tresnak. Adierazle tipikoak. Emaizten ustiapena.

71. gaia. Pertsonen gogobetetzea. Eragina duten alderdi nagusiak. Laneko giroa aztertze galdetegiak. Laneko giroaren azterlan bat ezartzeko metodologia. Lan eta osasun baldintzak: arrisku psikosozialak.

72. gaia. Administrazio elektronikoaren ondorio diren zerbitzu eta prozedura administratiiboak. Sinplifikatzea eta birdiseinatzea.

73. gaia. 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 12koa, datu pertsonalen babesarena. Xedapen orokorrak. Datuen babesaren printzipioak. Pertsonen eskubideak.

74. gaia. 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 12koa, datu pertsonalen babesarena. Titulartasun publikoko fitxategiak. Titulartasun pribatuko fitxategiak.

75. gaia. 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 12koa, datu pertsonalen babesarena. Datuen nazioarteko mugimendua. Datuen babeserako agentzia.

76. gaia. 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 12koa, datu pertsonalen babesarena. Arau haustek eta zehapenak. Xedapen gehigarriak. Aldi baterako xedapenak.

77. gaia. 1720/2007 Errege Dekretua, abenduaren 21ekoa, arautegia onartzen duena abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, datu pertsonalen babesarena, garatzeko. Kanpoan geratzen diren fitxategi edo tratamenduak. Definizioak. Jendearen eskurako iturriak. Datuen kalitatea. Datuak tratatzeko adostasuna eta informazio betebeharra. Tratamenduaren arduraduna.

78. gaia. 1720/2007 Errege Dekretua, abenduaren 21ekoa, arautegia onartzen duena abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, datu pertsonalen babesarena, garatzeko. Datuak eskuratu, zuzendu, baliogabetu eta aurka egiteko eskubideak. Datuak tratatu aurreko betebeharrak. Datuen nazioarteko transferentziak. Segurtasun neurriak datu pertsonalen tratamenduan.

79. gaia. 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, titulartasun publikoko datu pertsonalen fitxategiena eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzekoa. Xedapen orokorrak. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa. Zehapen araubidea.

80. gaia. Administrazio prozedura (I). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena. Bitarteko elektronikoen erabilera arautzea: administrazio prozeduran interesdun direnen identifikazioa eta sinadura (9-12 artikulua). Pertsonen eskubideak administrazio publikoekin dituzten harremanetan (13. artikulua). Administrazio publikoekin harreman elektronikoa izateko eskubidea eta betebeharra (14. artikulua).

81. gaia. Administrazio prozedura (II). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena. Bitarteko elektronikoen erabilera arautzea: erregistroak. Erregistro elektronikoa. Dokumentuak artxibatzea. Artxibategi elektronikoa berria (6. artikulua / 16-17 artikulua / Aldi baterako 1. eta 2. xedapenak).

82. gaia. 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, sektore publikoaren araubide juridikoarena. Erakunde sektore publikoaren antolamendua eta funtzionamendua. Administrazioen arteko harremanak.

83. gaia. 2.0 Administrazioa. Kontzeptua. Printzipio orokorrak. Tresnak. Ezartzeko arrakastaren zailtasunak eta gakoak.

84. gaia. Administrazio publikoa informazioaren gizarlean. E-Administrazioa: kontzeptua, onurak, arriskuak eta ezartzeko oztopoak.

85. gaia. Nortasun digitala eta sinadura elektronikoa. Sinadura, ziurtagiri eta zigilu elektronikoa. Printzipioak. Baldintzak. Segurtasun mailak. Konfiantza zerrendak. Balidazioa (eIDAS Erregelamendua: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 910/2014 zk., uztailaren 23koa).

86. gaia. Gobernantza. Kontzeptua. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, informazio publikorako sarbidearena eta gobernu onarena: xedea, publizitate aktiboa, informazio publikorako sarbide eskubidea (I-III kapituluak). Gobernu ona (II. titulua).

87. gaia. 11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzena. Dirulaguntzak eman eta kudeatzeko prozedurak (I. titulua).

88. gaia. 52/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa, Arabako Foru Aldundiaren antolamendua, funtzionamendua eta araubide juridikoarena. Atariko titulua. Foru Gobernu (I. titulua).

89. gaia. 52/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa, Arabako Foru Aldundiaren antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoarena. Foru Administrazioa (III. titulua).

90. gaia. Genero politikak: ekintza positibotik mainstreaming-era. Arabako emakumeen eta gizonen berdintasunerako foru plana. Aldundia foru planaren eraikuntzan. Esku hartze arloak. Glosarioa.